



# URTEKO BIZIKIDETZA PLANA

## 2014-15 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA





# AURKIBIDEA

## Orrialdea

0.- SARRERA .....	1
1.- INSTITUTUA ETA BERE INGURUNEA .....	2
2.- AURREKARIAK .....	2
3.- EGUNGO EGOERA .....	3
4.- BIZIKIDETZA EREDUA .....	4
5.- BIZIKIDETZA ARAUAK .....	4
6.- HELBURU OROKORRAK .....	5
7.- LAN ILDOAK .....	6
7.1.- Ikastetxeko bizitzan parte hartzea .....	6
7.2.- Arauak .....	16
7.3.- Gatazken ebazpena .....	19
7.4.- Giroa eta lekuen egokitzapena .....	21
7.5.- Sektore ezberdinen arteko harremanak .....	22
7.6.- Kide berdinen arteko tratu txarra .....	24
7.7.- Curriculum-eremua eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesua .....	26
8.- BIZIKIDETZA BEHATOKIA .....	28
9.- HARRERA PLANA .....	28
10.- ESKOLA-BITARTEKARITZA PROIEKTUA .....	28
11.- ZABALKUNDEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA .....	28
12.- ERANSKINAK .....	29



## **0.- SARRERA**

Ikastetxeak, gero eta gehiago, gazteen heziketaz arduratu behar dira, ez bakarrik oinarrizko ezagutza akademikoei dagokienez, baita agertzen zaizkien egoera sozial eta pertsonal ezberdinei modu egoki batean erantzuten irakasteaz ere.

Kanpoko presioei erantzutea nahiko tentagarria izan daiteke gelako gatazketan eta jokabide arazoetan arreta jarriz, eta nerabeen ekintza inkonformista edota ez-konstruktiboak aintzakotzat hartzea oztopoak izango bailiran, programazio didaktikoan azaldutako helburuak burutzeko, egoerari aurre egiteko irtenbide globalak bilatu barik.

LOGSEk ikasketa planetan prozedurazko eta jarrerazko edukiak sartzerakoan, hezkuntza pertsonaren garapen osoa bezala hartzen du; hori horrela izanik, garapen kognitiboan ez ezik, giza garapenean eta garapen pertsonalean ere arreta jartzen du.

**Hezkuntzako** maiatzaren 3ko **2/2006 Lege Organikoak**, ELOk, beste batzuen artean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna ezartzen ditu; hauek sentimenduak, emozioak, giza gaitasunak, besteekiko harremanak, bizikidetza eta parte hartzea lantzerako behartzen gaituzte. Horretaz gain, hezkuntza helburu gisa bizikidetza eta eskola giro egokia ezartzen ditu, 1. artikuluan c), k) eta l) paragrafoetan batzen den bezalaxe; hezkuntza sistemaren hastapen gisa zenbait baloreen praktika eta transmisioa ezartzen dira; balore hauek erraztuko dute norbanakoaren askatasuna, erantzukizuna, hiritartasun demokratikoa, elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, begirunea eta justizia; era berean, edozein diskriminazio mota gainditzeko laguntzen duten baloreak; hezkuntza gatazken prebentziorako eta euren konponbidea era baketsuan; ez-indarkeria bizitzaren arlo guztietan, bai pertsona mailan, bai familia mailan, baita gizarte mailan ere; eta eskubideen berdintasunaren eta aukeren garapena eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapena.

Euskadin, **Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993ko Legeak** bere helburuetarikoan artean honako hau ezartzen du: *"Bizikidetza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen nortasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta jokaera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko eta kontzientzi askatasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar eramankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko ditu"*. Eta hau guztia **Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko 201/2008ko Dekretuan** zehazten da; ikastetxeen barneko bizitzeko araudian BIZIKIDETZA PLANei erreferentzia egiten die 5. artikuluan.

Irakasleek, zeregin berri honen aurrean, euren egoeraz hausnarketa egin beharko dute; hori dela eta, laguntza beharko dute komunikazio modu berriak ikasteko eta euren berdinekin eta ikasleekin harremanak izateko. Izan ere, metodologia berriak izan beharko dituzte prozesu pedagogikoan partaidetza konstruktiboan laguntzen dutenak eta harremanen oinarrizko ardatza pertsonen arteko begirunea izan behar da.

Hezkuntza prozesuan irakasleek gain, inplikaturik dauden beste sektore batzuek ere aldi berean ikasi behar dute, era aktiboan parte hartuz. Izan ere, ikasleek eta familiek ari gara hizketan, hurbilen dagoen komunitatea eta hezkuntza administrazioa elkarlanean eta kolaborazioan horretarako bideak errazten dituztenak.

Hori horrela izanik, ikastetxe honek lan egiteko plan bat diseinatu du, euren buruarekin eta besteekin pertsona adeitsuen garapena eta eraikuntzarako urratsak emateko helburua izanik; egoera gatazkatsuei aurre egiteko gauza direnak, bizikidetza onerako konpromiso, begirune eta komunikazio onak bitarteko izanik gizartean parte hartzeko prestaturik daudenak. Hori dela eta,

hauexek izango dira gure lan ildoak, komunitatea osatzen duten heziketa sektore ezberdinen artean garatzekoak:

- **Partaidetza.**
- Gatazken arautzea (**bizikidetza arauak**) eta euren trataera (**gatazken ebazpena**).
- Ingurua zaintzea (**giroa eta lekuen egokitzapena**).
- **Pertsonen arteko harremanetan** komunikazio ona eta **emozio eta sentimenduen adierazpena**.
- **Curriculum-eremua.**
- Institutuan **ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan** denbora gehien elkarri eragiten dioten leku gisa.

## **1.- INSTITUTUA ETA BERE INGURUNEA**

DOLORES IBARRURI BHI ikastetxe publiko eta doakoa da, A eta D eredu linguistikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak dituelarik.

Ikastetxea meatzaldeko Gallarta auzoan dago, Abanto-Zierbana udalerrian, egun biztanleen gehiengo batek inguruko industrialdeetan dauden enpresetan eta zerbitzuetan lan egiten du; industria astuna, ontziola, labe garaiak eta meatzaritzarekin loturik zeuden industriak desagertu ostean.

Auzoa ondo komunikaturik dago, trena eta errepide onak izanik.

Biztanleen maila sozio-ekonomikoa era askotakoa da, euren maila kulturala erdi mailakoa da eta elkartze-maila erdikoa edo altua da.

Institutuak azken ikasturteetan 450 ikasle inguru izan ditu, horietatik 250 DBHkoak dira, 100 inguru Batxilergokoak eta 100 ikasle inguru Lanbide Heziketakoak. Familien tipologia era askotakoa da, bai ekonomia mailan, bai kultura mailan, baita familiaren egituraren ere. Irakasleria gutxi gora behera 60 irakaslek osatzen dute, horietatik bi heren emakumezkoak izanik. Administrazioan eta zerbitzuetan 12 pertsonen lan egiten dute, guztiak emakumezkoak bat izan ezik.

## **2.- AURREKARIAK**

DOLORES IBARRURI BHI bizikidetza hobetzeko lehenengo Hezkuntza Berriztatze Proiektua 1997-1998 ikasturtean martxan jarri zen eta handik aurrera ikasturtez ikasturte aurrera jarraitu du.

Denbora honetan lan nagusiak honako hauek izan dira:

- Ikastetxean eguneroko bizitzan dauden estamentu guztiak batzea: ikasleak, irakasleak, familiak eta irakaslea ez den pertsonala, kalitatezko hezkuntza bilatuz, gero eta giza-harreman adeitsuagoetan oinarriturik, tonu integratzaile eta baikorren bizi izanak. Lan egiteko eta egoteko leku komun baten bilaketa, ahalik eta aberasgarriena, hau da, kalitatezko inguru fisikoa eta onbera.
- Ikastetxean bizikidetza sustatzen duten dinamikak eta estrategiak asmatzea, guztion artean antolakuntza eta kudeaketa moduak sortzen ahaleginduz, non bakoitza den modukoa onartua den eta maila pertsonal eta profesionalean garatu ahal den.

Ikastetxeko bizitzan Hezkuntza Berriztatze Proiektuaren eragina zenbait adierazletan islatzen da:

- Indarkeria egoeren jaitsiera.

- Ikasle berrien integrazio ona.
- Giro on subjektiboa, familia, ikasle eta irakasleek esanik.
- Zuzendaritza taldea eta irakasleen arteko koordinazioa bizikidetza adiskidetsua sortzeko.
- Bizikidetzarako oinarritzko arauen onarpena: materialak zaintzea, puntualtasuna, klasera joatea, etab.
- Elkarrizketaren eta akordioaren bidezko gatazken konponbiderako elkarlana.
- Ikasleen partaidetzaren ugaltzea eta indartzea.

Urte hauetan Institutuan Bizikidetzaren sustapena bultzatu duten ekintzak honako hauek izan dira:

- Tutoretza lana.
- Delegatuen hautaketa.
- Institutuaren apainketa.
- Ikasle Laguntzaileak.
- Ikasleen partaidetza ekintza ludikoetan.
- Elkargunearen erabilera.
- Irakasleen formazioa.
- Familiekiko ekintzak.
- Ikasleentzako eta familientzako bileretarako leku bat egokitzea.
- Aisialdiari begira eskolaz kanpoko uneetarako materialak ematea.

### **3.- EGUNGO EGOERA**

Aurreko urteetako lanari esker ikastetxearen funtzionamenduan garatuz joan diren praktika asko sartu ahal izan dira. Ikastetxearen bizikidetza hobetzeko ilusioa indarrean dago, eta, proiektu ofizialen barruan egon ez arren, bizikidetza koordinatzailearen figura egonkorra mantentzen da.

Irakasleen klaustroa gaiarekin sentsibilizaturik dago baina eztabaidetarako eta adostasunak hartzeko biltzeko momenturik ez du, eta horrexegatik, batzuetan, pertsona bakoitzak bere aldetik edo inertiak gidaturik funtzionatu behar du. Ikasleek, euren aldetik, beste ikaskideekin eta irakasleekin modu on batean eragiten dute, baina hezkuntza berak eta bizikidetzarekiko sentsibilizazio ezak gero eta zailago egiten du bizikidetzako hobekuntzarako lan berezia. Bestetik, familiek ikastetxeko bizitzan parte hartzen dute, batez ere, curriculum gaietan, sentsazio orokorra ona izanik. Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak bizikidetza adiskidetsuan ere parte hartzen du, batzuetan euren lanak eraginda.

Institutuak bizikidetzaren kudeaketarako dituen tresnei dagokienez honako hauek aipatzekoak dira:

- AJAn eguneratu eta islatzen den zentro bezalako funtzionamendu araudia.
- OOGren batzorde egonkorra, funtzioen artean diziplinazko kudeaketa duena.
- Bizikidetza behatokia, 2009-2010 ikasturtean martxan jarri zena.
- Ikasle Laguntzaileen zerbitzua.
- Gatazken konponbiderako eta bitartekotzarako dagoen gela, beste ekintzetarako ere erabiltzen dena.
- Inguruko Udaletxeen eta beste instituzio batzuen gizarte-zerbitzuekiko lankidetzak.

## 4.- BIZIKIDETZA EREDUA

DOLORES IBARRURI BHIk hezkuntza prozesua nortasunaren garapen osotzat hartzen du, eta eskubideen begirunean eta betebeharren burutze arduratsuan, hezkuntza komunitateko kide guztiak inplikatzeko dituen eta on egitean, zorroztasunean, sen onean eta guztion partaidetzan oinarritzen da.

Bizikidetza inguru inklusiboan sortzen diren pertsonen arteko harreman-saretzat hartzen da, bertan pertsona bakoitzak hazteko eta parte hartzeko aukerak izanik. Harremanak entzutean, begirunean eta enpatian oinarrituko dira, hau da, hizketa gatazkari aurre egiteko tresna izango da, hauxe ikasbidetzat harturik. Hortaz, gatazken tratamendua eredu integratzaile bezala ulertzen saiatzen ari gara, ez zigortzeko modua bezala. Izan ere, instituzio guztiak arauen bitartez zuzenduak izan behar direla kontuan hartzen baldin badugu, justizian oinarritutako araudi eredu nagusitu behar da, pertsonak arazoetatik ezberdintzen dizuen.

Bizikidetza sustatzeko neurri eta ekintzen multzoa hurrengo printzipioetan oinarritu behar da:

- Esku-hartze prebentiboa eta ikastetxean giro hezitzaile eta soziala sortzera bultzatzen duena, eta gatazken konponbide baketsua nabarmentzen duena.
- Agente guztien parte hartze eta esku-hartze aktiboa ekintzen diseinuan, planifikazioan, garapenean eta ebaluazioan, eskolako bizikidetza hobetzeko eta sustatzeko.
- Erakunde eta organo ezberdinen arteko koordinazioa eta erantzukizuna, bai administrazioarena, bai hezkuntza komunitatearena.
- Osotasuna, horrela bizikidetza osatzen duten elementu guztiak eta arrisku-faktoreak murriztera eta eskola-gatazkek saihestera zuzentzen direnak kontuan hartuko dira ikastetxeko eguneko bizitzan garatzen diren ekintza eta praktika guztien garapenean.

## 5.- BIZIKIDETZA ARAUAK

BIZIKIDETZA PLAN honen barruan dauden gure helburu guztiak ikasleen eskubide eta betebeharrak betetzearekin erlazionaturik daude. Bizikidetza arauak, bai ikastetxeko orokorrak direnek bai gelako bereziak direnek, helburuak berak zehazten dituzte, eta horietan oinarriturik, arauen ez betetzea igartzekotan dagozkien diziplina neurriak edota neurri zuzentzaile eta prebentiboak hartuko dira.

Ikasleen **Eskubide eta Betebeharrek** erreferentzi marko orokor bezala **201/2008ko Dekretua** dute, eta honen arabera ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira. Dekretu honen bitartez ere unibertsitateaz kanpoko ikastetxe pribatu zein publikoetan bizikidetza arauak arautzen dira.

Ikasle guztiek eskubide eta betebehar berberak dituzte. Euren betetze maila adinaren eta ikasten ari diren ikaskuntzen ezaugarrien arabera izango da. Araudia hurrengo aspektuen bitartez zehaztu ahal dugu:

- a) Klasera puntualtasunez joatea eta curriculumaren garapenerako bideratutako ekintzetan ahalegintzea eta parte hartzea.
- b) Ikastetxeko ekintzen garapenerako onartutako ordutegiak betetzea eta errespetatzea.
- c) Ikasketari dagokionez irakasleen orientazioei jarraitzea eta behar den begirunea erakustea.
- d) Ikaskideen ikasteko eskubidea errespetatzea.
- e) Kontzientzia-askatasuna eta erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak errespetatzea, baita hezkuntza komunitatearen kide guztien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere.
- f) Inor ez diskriminatzea jaiotza, arraza, sexu arrazoiengatik edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal edo sozialengatik.



g) Ikastetxearen instalakuntzak eta ondasunak behar den bezala erabiltzea eta zaintzea, eta hezkuntza komunitatearen kideen ondasunak errespetatzea.

h) Hezkuntza komunitatearen kideen arteko harreman onak eta bizikidetza erraztea.

DOLORES IBARRURI BHIIn egun indarrean dauden bizikidetza arauak ikasle guztiek ikastetxean dauden bitartean nahi ditugun portaerak azpimarratzen dituzte, eskola barruko zein eskolaz kanpoko ordutegietan, gela barruko ekintzetan zein informala goak diren ekintzetan.

DOLORES IBARRURI BHIk bere egiten ditu Euskal Autonomi Erkidegoaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen Eskubide eta Betebeharren 201/2008ko Dekretuan zehazten diren jokabide desegoki, bizikidetzaren kontrako jokabide edo bizikidetzari kalte larria egiten dion jokabideak; baita bertan azaltzen diren aipatutako jokabideak bideratzeko neurri hezitzaile-zuzentzaileak ere, bereziki jokabideak zuzentzeko neurri aldizkakoak.

Azpimarratu behar da bizikidetza arauak ezin dutela inoiz galdu euren helburua, hots, ikastetxeko taldeen bizikidetza erraztea, konpartitzea, adostea eta taldea hobetzeko elkarrekin lan egitea. Beraz, aurreikustean datza eta ez esku-hartzean; elkarrekin lan egiteko giro adeitsua sortzean datza eta ez horrenbeste burutzen diren ekintzak arautzean. OOGk, bizikidetza behatokiak, gobernu organoek, irakasleek eta hezkuntza komunitatearen beste kide guztiek ere bizikidetza arauen kontrako jokabideen aurreikuspenean arreta berezia jarriko dute, beharrezkoak ikusten diren neurri hezitzaileak jarritz.

## **6.- HELBURU OROKORRAK**

Bizikidetza berez helburu hezitzailea da eta hezkuntza prozesuan oinarritzkoa. Ez da soilik arau zuzentzaileen bilduma. Plan honetan biltzen diren jarduerak helburu hezitzaileak erraztea bilatzen dute, norbanakoaren aspektu guztietan aldaketak suspertuz.

Gure ikastetxeko BIZIKIDETZA PLANak hurrengo helburuak zehazten ditu.

- a) Gobernu organoei eta irakasleei ikastetxeko bizikidetza hobetzeari, indarkeriaren aurreikuspenari eta bakearen kulturaren sustapenari dagokienez, tresna eta errekurtsoak ematea.
- b) Hezkuntza komunitatearen kide guztien hazkunde pertsonalean bizikidetza errazteko ahalbidetzen duten neurriak artikulatzea; giro atseginean, adeitsuan, parte hartzailean eta integratzailean.
- c) Hezkuntza komunitatea kontzientziatzea eta sentibilizatzea ikastetxeko bizikidetza egokiaren garrantziaz eta hobetzeko prozedurez.
- d) Arauen betetze eta onartze maila hobetzen ahalbidetzen duten praktika, jarrera eta baloreak sustatzea, eta aniztasunarenganako begirunean eta emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasunean aurreratzea.
- e) Institutuaren funtzionamendu ereduak agirietan eta tresna idatzietan islatzea, bizikidetzaren garapena eta ezarpena orokortzeko eta normalizatzeko.
- f) Ikastetxean sor daitezkeen gatazken aurreikuspena, antzematea, tratamendua, jarraipena eta konponbidea erraztea, eta ikasteko iturri bezala erabiltzen ikastea.
- g) Elkarrizketa, entzutea eta bitartekotzaren erabilera bultzatzea, gatazken tratamendu positibo gisa.
- h) Indarkeria adierazpen guztiak aurreikustea, antzematea eta deuseztatzea, bereziki, berdinen arteko tratatu txarra, genero indarkeria eta jarrera xenofoboak eta arrazistak.
- i) Hezkuntza komunitatearen kide guztiek komunikaziorako eta gatazken konponbiderako giza gaitasunak garatzea, euren arteko harremanetan giro ona errazten dutenak.

- j) Familien inplikazioa bultzatzea, etxeetan ikaskuntza hau laguntzen duten jarrerazko ekintzak eginez.

## 7.- LAN ILDOAK

### 7.1.- IKASTETXEKO BIZITZAN PARTE HARTZEA

Nerabearoa, zalantza barik, oso garai zaila da eta aldaketa askok baldintzaturik. Aldaketa hauek ez dira fisikoak bakarrik, baizik eta mota askotakoak ere badira, esaterako, nortasunarekin, inguru sozialarekin, garapen kognitiboarekin edo balore propioen finkatzearekin lotuta daudenak. Aipatutako aldaketak aginte figuren zalantzarekin loturik daude, baita berdin iritzien balorazio handiagoarekin ere. Aspektu hauek guztiak, eskola-motibazio galtzea handituz doan heinean, ikastetxeetako gatazken eta diziplina arazoek kopurua handitzen ari da.

Komunikabideek ematen dituzten giza ereduak ez dute gaitasun akademikoa baloratzen, baizik eta edonola lortutako arrakasta: indartsuenaren legea, diruaren gurtza, etab., askotan institututik bultzatu nahi ditugun baloreak (errespetua, ahalegina, partaidetza, etab.) lurretik lagaz.

Hezkuntzaren egungo egoera ez da oso itxaropentsua: hezkuntza lanaren eta irakaslearen lanaren (irakaslearen autoritatea zalantzan jarriz, euren nekea azpimarratuz, errekurso eza, etab.) esker onaren falta. Askotan, gainera, egungo beharrei hezkuntzaren egokitze falta dago.

Familiak askotan heziketa eskolaren esku lagatzen du. Egungo gurasoek arrazoi ezberdinengatik euren seme-alabekin egoteko denbora gutxiago dute: etxetik kanpoko lana, ekintza pertsonalak, etab.

Giza erreferenteak aldatu egin dira: ahalegin txikiena eta dena erraz lortuta oso ondo bizitzea baloratu egiten da.

Hezkuntza komunitatea osatzen duten agente ezberdinen inplikazioa erabakigarria da ikasleen garapen pertsonala eta akademikoaren garapena errazten duen bizikidetza giro egokia zehazteko eta helduak direneko bizitza arautzen duten balore-sistema ezartzen laguntzen dutenak.

Parte hartzea abagune ezin hobea da hiritartasunerako eta barneko demokraziarako jarrerak garatzeko; izan ere, helduaroan ikasleen portaera eta pentsamendua arautzen dituen balore-sistema ezartzen laguntzen duten baloreak praktikan jarriz.

Parte hartzeak ezagutzea, interpretatzea eta ulertzea esan nahi du. Parte hartzeak eskarmentu eta ideien elkartrukatzea eta bizikidetza erraztea bultzatzen du.

Parte hartzeak hezkuntza lan komuna bezala hartzea eta taldea baloratzea esan nahi du, nerabearen bizitzaren arlo ezberdinetan lan egitea; elkarlana, laguntza, trukea, errespetua, norberaren ezagutza eta enpatia bultzatuz.

Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) ikastetxearen funtzionamendua arautzen du eta erabakiak hartzeko orduan oreka ematen duten organo ezberdinen beharra ezartzen du. Honako hauek dira: OOG, irakasleen klaustroa, IGE, departamentuak, delegatuak eta bizikidetza behatokia. Hala eta guztiz ere, eskola komunitatearen kide askok hartutako erabakietatik at daudela uste dute, informazio, inplikazio edota ardura ezagatik.

Ikastetxean estamentu ezberdinen parte hartzea berrikustea beharrezkoa da, gizartearen aldeko ekintzak sustatzeko, hots, laguntza, konpartitzea, inplikitzea. Baina, aldi berean, parte hartzea oinarrizko hezkuntza helburu gisa ulertzea beharrezkoa da, giza gaitasuna, bestereanganako begirunea, ekintza solidarioak eta ez bortitzak garatzen ikasteko.

## HELBURUAK:

1. Hezkuntza komunitatea osatzen duten agente ezberdinak inplikatzeko, norbanakoaren hazkundera errazten duten bizikidetzarako giro onaren sorreran.
2. Ikasleen partaidetza handitzea, pertsona gisako formazioarekin zerikusia duten kontuetan.
3. Ikastetxearen estamentu ezberdinen parte hartze sistema etengabe berrikustea.
4. Ikasturtean zehar era aktiboan parte hartu duten pertsonak ezagutarazteko ekintzak bultzatzea.
5. IKTetan oinarritutako parte hartze era berriak progresiboki aktibatzea.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDETZA: ARRUNTA	OOG eta Batzordeak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldez aurretik sektore bakoitzari esatea bilera eguna, ekarpenak egin ahal izateko.</li> <li>• Gelan OOG zer den, bere funtzioak zeintzuk diren eta norkosatzen duen lantzea.</li> <li>• Ikasleen ordezkariak aurkeztea.</li> </ul>	Zuzendaritza taldea  Tutoretza ordua. Agenda.	14-15ean mantendu  14-15ean mantendu	Panel informatiboetan aditzera emango da eta kideei zuzenean.
	Bizikidetzak Behatokia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolakuntza erak ikasleen ordezkarietan lantzea eta OOGra eraman litezkeen ikaskideen proposamenak biltzeko bilera unek izatea. Horren ostean, informazioa itzultzeko bideak ikastea.</li> <li>• Sektore ezberdinei bilera, proposatutako gaiak, adostasunak, eta abarren berri ematea.</li> </ul>	Debatuen bilera. Hasierako formazioa 1. eta 2. mailako delegatuei.  Zuzendaritzari eskatzea. Protokoloaren elaborazioa	14-15ean azpimarratu  14-15ean lehentasuna	Tutoretza Ekintza Planean jasoa.  Bileren egutegia egin eta jakinarazi.  OOGko kideen eta funtzioen zerrenda aurkeztea, baita lan egutegia ere.
			Bilerak. Panelak, klaustroa	14-15ean mantendu	Tutoretza ordua erabili informazioa pasatzeko.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDEITZA : IRAKASLEAK	Departamentuko Buruen Bilerak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai didaktikoei buruz lan egitea Departamentuko Buruen Bileretan.</li> <li>Beste kanal bat sortzea edo erabiltzea informazioak emateko, edota antolatzaile eta curricularrak ez diren aspektuei buruz erabakiak hartzea.</li> </ul>	Zuzendaritza	14-15ean bultzatu	Departamentuko Buruen Bilerak denok batera egitea mantendu (beti ere posiblea bada).
	Departamentuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Funtzioak gogoraraztea.</li> </ul>	Departamentuak	14-15ean garatu	MOODLE eta Intraneta erabili
	Irakasle taldea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bilerak errazteko denbora ematea, (hilabetean behin bilera egiteko aukera)</li> </ul>	Zuzendaritza. Departamentuko buruak	14-15ean mantendu	Ikasturte hasieran gogoratu.
	Koordinazioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasle taldeen koordinazioak sustatzea.</li> </ul>	Zuzendaritza taldea Irakasle taldeak Koordinatzaileak	14-15ean mantendu	Baliabideak jarri erabakitzen diren irakasle taldeetako bilerak egiteko
	Formazio ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasleen beharrei egokitzea eta adostea.</li> </ul>	Irakasle taldeak	14-15ean mantendu	
	Banakoaren ekarpenak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kanalak mantentzea, banakako ekarpenak egin ahal izateko.</li> </ul>	Batzorde Pedagog. Proiektuen koordinatzaileak Zuzendaritza	14-15ean jarraitu	Ikasturte hasieran zehaztu
			Irakasleak	14-15ean mantendu	

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
<b>PARTAIDETZA: IKASLEAK</b>	<b>Delegatuak eta delegatu-ordeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasturtean zehar delegatuen hiru bilera gutxienez egitea.</li> <li>Delegatuentzako akta koadernoan erabilera bultzatzea, bertan bilduko dira euren lanean lagunduko dieten landutako gaiak, adostasunak eta abar.</li> </ul>	Tutoretza Plana Tutoretza ordua Ikasketa Burutza Orientatzailea	14-15ean jarraitu	Maila guztietan mantendu eta jarraipena egin
	<b>Lan batzordeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Parte hartze batzorde ezberdinak bultzatzea:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Agenda 21</li> <li>- Ikasle laguntzaileak</li> <li>- Euskera</li> <li>- Bizikidetza behatokia</li> </ul> </li> <li>Antolatzeko lekuak eta uneak ematea.</li> </ul>	Ikasleak Koordinatzaileak	14-15ean jarraitu	
	<b>Iradokizun gutunontzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Klasean gutunontziaz hitz egitea, bultzatzea eta bere funtzioa zein den esatea.</li> </ul>	Irakasleak	14-15ean mantendu	
	<b>Informazio panelak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dauden informazio kanalen erabilera bultzatzea eta hobetzea.</li> <li>Megafonia erabiltzea informazioa emateko ikastetxearen leku komunetan.</li> </ul>	Tutoretza Plana Tutoretza Ordua	14-15ean mantendu	Tutoretzan, era praktikoa batean, idatzizko iradokizunak egin eta behar den tokian utzi.
	<b>Gelako asanblada</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lan egiteko gela asanbladak egitea: bidaien antolakuntza, ebaluazio saioak prestatzea, ikasleen arteko gatazkak analizatzea, ikasle-irakasle.</li> </ul>	Zuzendaritza Tutoretza Koordinatzaileak	14-15ean jarraitu	Komunikatzeko beste bide batzuk bilatu.
		<ul style="list-style-type: none"> <li>Taldearen ideia eta tutoretza orduan taldeen arazoez hitz egiteko beharra sustatzea.</li> </ul>	Tutoretza Plana	14-15ean jarraitu	
			Tutoretza Plana	14-15ean mantendu	

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDETZA: IKASLEAK	Giltzaren arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gela bakoitzaren ixtearen eta zabaltzearen kudeaketaz ardura hartzea</li> </ul>	Tutoretza	14-15ean jarraitu	
	Gelaren apainketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Baldintza batzuk kontuan izanik, gelaren pertsonifikazioa eta apainketa bultzatu (II. ERANSKINA)</li> </ul>	Tutoretza	14-15ean jarraitu	
	Ikasle laguntzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasle laguntzaileen zerrendarekin txosten bat banatzea, euren funtzioekin, esku-hartze protokoloekin, bulegoaren kokapenarekin, ... DBHko eta Batxilergoko mailetako tutore guztiei.</li> <li>Hezkuntza Komunitatearen artean Ikasle Laguntzaileen lana zabaltzea.</li> <li>Laguntza eskatzeko moduaren berri ematea.</li> <li>Ikasle Laguntzaile berrien eta bitartekaritza taldearen formazioan ahal den neurrian inplikatzeari.</li> <li>Ikasle Laguntzaileen informazio kartelak birmoldatzea.</li> <li>Bitartekaritza proiektua zabaltzea eta praktikan jartzea.</li> </ul>	Tutoretza Plana Tutoretza orduak Panelak Klaustroa OOG Behatokia	14-15ean jarraitu	
	Ikasketa bidaien antolakuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Klasearekin bidaien antolaketa mantentzea, euren inplikazioa eskatuz, lanak banatuz eta erantzukizunak onartuz.</li> </ul>	Tutoretza ordua	14-15ean jarraitu	
	Bizikidetza Arauak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizikidetza arautzen duten gelako arauen elaborazioan parte hartzea.</li> </ul>	Tutoretza ordua	14-15ean jarraitu	
	Ebaluazio saioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Adostutako uneetan ebaluazio saioetan ikasleen parte hartzea bultzatzea.</li> <li>Saiora eramango dena gelan lantzea.</li> </ul>	Tutoretza ordua	14-15ean jarraitu	
	Kexak eta eskaerak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erreklamazio, ekarpen eta kexetarako esku-hartze kanalak erabiltzea.</li> </ul>	Tutoretza Plana Tutoretza ordua	14-15ean jarraitu	
	Kalteak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Protokoloen erabilera bultzatzea.</li> </ul>		14-15ean jarraitu	

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDETZA: AZP	Proiektuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuetan proposaturiko zenbait ekintzatan AZP inplikatzeari:               <ul style="list-style-type: none"> <li>.- Osasuna</li> <li>.- Agenda 21</li> <li>.- Ikasle laguntzaileak</li> <li>.- Bitartekaritza</li> <li>.- Normalkuntza</li> <li>.- TIK</li> <li>.- Eskolaz kanpoko ekintzak</li> <li>.- Atsedendarien animazioa</li> </ul> </li> </ul>	Zuzendaritza taldea Proiektuen koordinatzaileak AZPko pertsonala	14-15ean jarraitu	
	Antolakuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaritza eta AZPko sektore ezberdinen arteko komunikazio kanalak mantentzea, egiten ari den lana ebaluatzeko, iritzia biltzeko eta behar diren aldaketak egiteko.</li> </ul>	Zuzendaritza Taldea AZP	14-15ean jarraitu	



LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDETZA: FAMILIAK	Eskolaz kanpoko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola-kirola eta eskolaz kanpoko ekintzen antolaketa zaintzea eta mantentzea</li> </ul>	IGE	14-15ean jarraitu	
	Jaiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>IGERI iradokizunak eskatzea, ikastetxeko jaietako ekintzetarako.</li> <li>Ikastetxearen jaietako zenbait ekintzetan familien partaidetza bultzatzea.</li> <li>IGE eta familiak biltzeko ekintzak antolatzea.</li> </ul>	Zuzendaritza IGE Behatokia	14-15ean jarraitu	
	Formazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familientzako formazioa antolatzea euren beharrak eta eskariak kontuan izanez eta zentroan bultzatutako proiekturen barruan.</li> </ul>	IGE Zuzendaritza taldea	14-15ean jarraitu	Hitzaldi bat ikasturte bakoitzean, gutxienez
	Tutoreekiko bilerak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasturte hasierako bilera mantentzea</li> <li>AMUGE elkartearekin batera ikasturte hasieran saio informatiboan antolaketa ahalbidetzea ijito etniako familiekin.</li> <li>Banakako bilerak mantentzea, beharrezkoa den guztietan</li> <li>Talderen batean esku-hartze berezia egiteko aukera izatea, lan egiteko plan konpartitzeko familiak deitzea.</li> <li>Bidaiaren bat antolatzeko orduan, talde osoarekiko bilera informatiboak eta parte hartzeak antolatzea.</li> <li>Notak banatzeko banakako bilerak izatea, irakasle taldeak eta tutoreak hala egoki ikusten dutenean.</li> <li>Familiei informazioa ematea, tutoreekin elkarriketa bat eskatzeko.</li> <li>Irakasle taldeak beharrezkoa ikusten badu, aurre-ebaluazio eta ebaluazio saioetan bildutako adostasunez familiei informazioa ematea, ikaslearen garapenez eta beharraz.</li> </ul>	IGE Familiak Tutoreak Zuzendaritza Irakasleak AMUGE	14-15ean jarraitu	Taldearen beharren arabera
	Ateak zabaltzeko egunak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familientzako ateak zabaltzeko egunak mantentzea, bazkaritxo bat antolatuz harremanak sortzeko eta elkarte partaidetza handiagora zabaltzea, eskarmentuak elkar trukatzeko, familia berriei beldurrak kentzea, etab.</li> </ul>	Zuzendaritza taldea Orientabide departamentua	14-15ean jarraitu	Matrikulazio epeetan

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
<b>PARTAIDETZA: FAMILIAK</b>	<b>Irakasleekiko bilera</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleekin bildu ahal izateko une eta prozedurei buruzko informazioa ematea.</li> <li>• Ikasle bakoitzaren jarraipen eta garapenerako interesgarriak izan daitezkeen familia eta irakasleen arteko adostasunen aktak biltzea.</li> </ul>	Irakasleak Familiak	14-15ean jarraitu	Oso garrantzitsua ikasleekiko eta familiekiko zenbait egoeretan.
	<b>Orientazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orientazio akademikoari buruzko beharrezko bilera informatiboak izatea.</li> </ul>	Orientazioa Familiak	14-15ean jarraitu	
	<b>Kanpoko agenteak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaletxeetako Zerbitzu Sozialekin, AMUGE elkartearekin, eta abarrekin lan saioak izatea eta koordinatzea.</li> </ul>	Familiak Kanpoko agenteak Ikastetxea	14-15ean jarraitu	
	<b>Komunikazio kanalak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kexak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak egiteko esku-hartze protokoloak ezagutaraztea</li> <li>• Ikastetxearen web orrialdearen erabilera indartzea</li> <li>• Familientzako e-mailak erabiltzea, komunikazio tresna gisa</li> <li>• Eskuko telefonoei bidalitako mezuak erabiltzea</li> </ul>	Zuzendaritza Tutoreak Irakasleak Orientazioa	14-15ean jarraitu 2015ean hasia	

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
PARTAIDETZA: KANPOKO AGENTEAK	Udala	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalarekiko kolaborazioaz mantentzea martxan dauden proiektuetan (Hizkuntza Normalkuntza, AGENDA 21, Elkarbizitza, Dolores Ibarri Ezagutuz, Hezkidetzak eta Berdintasuna, etc.) eta bultzatuko duten berrietan.</li> <li>Udaletxe ezberdinetako zerbitzuek diseinatutako hezkuntza proposamenetan parte hartzea (Beldur Barik, Sahara, etc.)</li> <li>Udal ezberdinetako Zerbitzu Sozialekiko ekintzak koordinatzea.</li> </ul>	Udala Zuzendaritza Klaustroa Orientazioa	14-15ean mantendu	
	AMUGE elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarlana eta koordinazioa mantentzea</li> </ul>	AMUGE elkarteak Ikasketa Burutza	14-15ean mantendu	
	Ikastetxeak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxera berri heltzen diren ikasleei buruzko informazio orria pasatzea, tutoreek betetzeko.</li> <li>Ikastetxeetako erreferenteekiko bilera ekainaren amaieran, informazioa trukatzeko eta taldeak antolatzeke.</li> <li>Aholkulari eta PTEkiko bilera, behar bereziko ikasleei buruzko informazioa trukatzeko.</li> <li>Ikasle eta familientzat ateak zabaltzeko egunak antolatzea.</li> <li>Aurre-matrikula garaian, familiei aurrez eta idatzizko informazioa ematea.</li> <li>Familia eta ikasleentzako saio informatiboak.</li> <li>Beharren arabera kontaktua puntualak.</li> </ul>	Orientazioa Ikasketa Burutza Irakasleak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak Kontsultoreak PTak eta Orientazioa Zuzendaritza	14-15ean mantendu	Matrikulazioa  Matrikulazioa Beharren arabera
	Berritzegunea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osagarri ikastetxeetako koordinazioa.</li> <li>Bizikidetzaren formazioko koordinazioa.</li> <li>Formazioaren garapena.</li> <li>Ebaluazioa.</li> <li>Bizikidetzak gaitan elkartrukea eta parte-hartzea.</li> </ul>	Zuzendaritza Orientazioa Berritzeguneko Aholkularia		

## 7.2.- ARAUAK

Kontzientzia kolektiboan arau minimo batzuen beharra dago, komunitate bateko edozein kidek jarraitu, errespetatu eta baloratu behar dituena; jarrera bortitzak eta antisozialak arautzen dituztenak eta bizikidetzaren guztien mugek institutuaren funtzio hezitzailea errazten dutenak. Erantzukizuna eta antolakuntza errazten dituzten arauak, jarrera jakinetan islatzen diren baloreetan oinarriturik.

Hortaz, araua jokatze moduen kode bezala ulertu behar da, giza-eskubideen defentsan eta errespetu eta berdintasunaren baloreetan oinarriturik, ikastetxearen eta gelaren errealitatean zentratuta, eta antolakuntza egokia erraztuz, ikaskuntza eta bizikidetzaren giro ona lortu ahal izateko.

Argi dugu araua elkarrekin elaboratzeak izaera baketzailea duela, negoziazioak eta erabakiak hartzeko prozesuak epe luzeari begira taldearen ongizatea dakarte. Arrazonamendu morala bilatu behar dugu eta ez helduaren autoritatean oinarritutako mugen ezarpena soilik; horretaz gain, arauari buruzko adostasunek arauaren ezarpena eta barneratzea errazten du.

Baina zer gertatzen da betetzen ez denean edo hausten denean?

Zigorak neurri zuzentzaileak dira epe laburrean portaera txarra saihesten dutenak, baina, gehienetan, epe luzean ez dute ezertarako balio. Zigorrak ekintza negatiboak ezkutupeko curriculum egiten laguntzen du, honek anbiguotasuna dakar eta bere izaera terapeutikoa eta balioa galtzen du, batez ere, irakasle edo ikaslearentzat jokatze erregela bihurtzen denean, edo hautazkoa denean, neurri kanpokoak, edo indarkeriaz eta estimu barik burutzen denean. Ikaslea bere nortasuna eraikitzen ari dela kontuan izan behar dugu eta beraz, oraindik ez dauka behin-betiko estimua aldatzeko aukera eman diezaiokena.

Hori dela eta, arauaren edozein hauste berehala landua izan behar da izaera hezitzailea indartuz, ekintzari eta ondorioei buruzko hausnarketa- prozedurak, irtenbideen bilaketa, adiskidetzaren eta konponketa nagusituz.

Irakasleentzat zailenartarikoak da zigor eta ondorioaren arteko muga zein den zehaztea da eta jokabide txarrari aukera logikoak ematea; baina badakigu ekintza txarraren ondorioa lantzea eta ikaslearen eragina duen ingurua sortzea izugarri garrantzitsua dela.

Hortaz, enpatia, begirunea, hausnarketa, entzutea eta elkarrizketa bezalako baloreen inguruko lana eta defentsa ezinbestekoa da, jokabideak aldatzeko eta gatazkaren aurreko irtenbideak bilatzeko.

### HELBURUAK:

1. Sektore ezberdinen aldetik ikaslearen eragina duen inguruaren sorreran elkarrekin lan egitea, jokabide desegokia kontrolatzeko eta arautzeko.
2. Guztion arteko ekintza protokoloa sortzea, ahalik eta argien, bizikidetzari kalte egiten dioten ekintzen aurrean eta ezagutzera ematea.
3. Pertsona guztiak bere ekintzei buruz hausnartzeko eta euren ondorioak baloratzeko gai izatea lortzea.
4. Zuzendu beharreko jokabidean berehala esku hartzea, kontuan izan barik jazotzen den unea eta lekua.
5. Begirunea, entzutea eta elkarrizketa bezalako baloreetan indarra jartzea.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
<b>ARAUAK</b>	<b>Bizikidetza arautegia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arauak betearazteko orduan familiaren laguntza eta kooperazioa indartzea.</li> <li>• Ikastetxearen oinarriko bizikidetza arauak jakinaraztea eta azaltzea.</li> <li>• Hezkuntza komunitateko sektore bakoitzak adostutako arauak betearaztea onartzea.</li> </ul>	Zuzendaritza Taldea Familiak	14-15ean jarraitu	Agendaren erabilera Gelako bilera
	<b>Gelako arauak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku-hartzeko estrategia komunak adostea, hezkuntza komunitateko sektore guztien inplikazio eta konpromisoa bilatuz.</li> <li>• Bizikidetza arauak aldatzeko eta hobetzeko kanalak jartzea</li> <li>• Hasieratik gelako giroa lantzea, begirunea eta harremanak lantzen saiatzea.</li> <li>• Neurri zuzentzaile aldizkakoak adostea eta praktikan jartzea: komunitaterako lanak, ikastaroak, liburutegian lan pertsonalak, etab.</li> <li>• Gelako funtzionamendurako arauak taldearekin adostea eta berrikusteko eta aldatzeko uneak jartzea.</li> <li>• Klase aldaketetan ez ateratzearen garrantzia azpimarratzea.</li> </ul>	Zuzendaritza Taldea Tutoreak Tutoretza Plana Tutoretza ordua Irakasleak Hezkuntza Komunitatea  Bizikidetza Behatokia Klaustroa OOG Irakasleak Tutoreak	Ikasturte hasiera  14-15ean jarraitu  14-15ean jarraitu	

### 7.3.- GATAZKEN KONPONBIDEA

Gatazka gure bizitzaren parte bat da, beraz, bere esanahiaz aritu beharko gara, eragiten duten arazoiez, osatzen duten elementuez, eta egokienak izan daitezkeen estrategiez, konponbide ona lortzeko.

Hezkuntza sistemak zeregin honetan protagonismo berezia du, hori dela eta, eta bere helburuetariko bat elkarrekin bizitzen ikastea izanik, teorikoki, ahalik eta ahalegin eta laguntza gehien eman beharko du.

Dena den, hezkuntza administrazioek, gizarteak eta familiek, bereziki, laguntza eman behar dutela azpimarratu behar da.

Gure helburu nagusia gatazka ikaskuntza-iturri gisa ikustea eta ulertzea da, gizakiaren hazkunderako beharrezko eta positibo gisa, indar motibatzaile eta aldaketa motor gisa, ez dugu ahaztu behar gatazkaren aurrean Gandhik zuen ulertzeko modua "dohain bat, aukera bat, guztiontzako onura izan daitekeena".

Hori guztia dela eta, gure lehenengo erronka gatazkaren ulertze negatiboa ezabatzea da eta bigarrena arautzen ikastea eta era zuzen batean eta indarkeriarik gabe konpontzea izango litzateke, "metodo batzuk zehaztu, ikasi eta praktikan jarri behar ditugu, ez gatazka ezabatu, baizik eta arautu eta emaitza onetara bideratu"(Lederach, 1985).

#### HELBURUAK:

1. Gatazkaren ulertze negatiboa ezabatzea.
2. Era justuan eta indarkeriarik gabe konpontzen eta arautzen ikastea.
3. Ikastetxearen leku formal eta informaletan ohikoenak diren gatazkek tipifikatzea.
4. Esku-hartze protokoloa ezartzea.
5. Gaian sektore ezberdinak formatzea, bereziki irakasleak.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK	
GATAZKEN KONPONBIDEA	Sektore ezberdinen arteko gatazka maila	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sektore ezberdinen arteko harremanak hobetzeko lan egitea.</li> </ul>	Zuzendaritza Taldea Hezkuntza Komunitatea	14-15ean jarraitu		
	Gatazken trataera	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gatazken aurreko esku-hartze jokabide koherenteak adostea (III ERANSKINA)</li> <li>Gatazkek arautzeko dauden kanalak ezartzea eta erabiltzea                             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Protokoloak</li> <li>- Bitartekotza</li> <li>- Ikasle laguntzaileak</li> <li>- Bizikidetza Behatokia</li> </ul> </li> <li>Gelan gatazka eta aurre egiteko modu ezberdinekin lan egitea.</li> <li>Eskola Bitartekaritza Batzordea martxan jartzea.</li> <li>Ikaslearen urruntzea eskatzen duten etengabeko gatazken aurrean Hausnarketa Gelaren erabiltzea.</li> <li>Klaseen artean pasabideetan kontrola eta ordena mantentzea.</li> </ul>	Irakasleak Tutoretza Plana Zuzendaritza Taldea Ikasle Laguntzaileak Orientazioa Bizikidetza koordinatzailea	14-15ean jarraitu		
					Ikasturtean zehar	
				Bizikidetza koordinatzailea Hezkuntza Komunitatea	14-15	
				Irakasleak	14-15ean jarraitu	Unean unean eta beti lanarekin. Hausnarketarako orria betearazi.
				Irakasleak	14-15ean jarraitu	

## 7.4.- GIROA ETA LEKUEN EGOKITZAPENA

Ikastetxearen ekologiak, horma zuri edo zartaturik ikusteak, jarrera bortitzarekin zerikusia du, ikastetxean sortu ahal den suntsiketa jarrerarekin. Horregatik aspektu hau beti zaindu dugu institutuan.

### HELBURUAK:

1. Lekuak eta altzariak egoera onean mantentzea.
2. Horien erabilera egokia adostea.
3. Giro harmonikoa sortzeak duen garrantziaz jabetzea eta lortzeko parte hartzea.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
GIROA ETA LEKUEN EGOKITZAPENA	Egokitzapena eta hornidura	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasle gela garbi eta ordenaturik mantentzea (mahai gainean materialik gabe, aulkiak euren lekuetan, etab.)</li> </ul>	Irakasleak	14-15ean jarraitu	Guztion partaidetza bilatzea.
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arbelen islak kentzea.</li> <li>• Gelak garbi eta ordenaturik mantentzen ahalegintzea.</li> <li>• Ikasleen euritakoak gordetzeko sistema bat jartzea.</li> <li>• Atarian berotzeko sistema bat jartzea.</li> </ul>	Zuzendaritza Irakasleak eta ikasleak Zuzendaritza Zuzendaritza	2015 14-15ean jarraitu 2015 2015	Guztion partaidetza Aukerak aztertzea Aukerak aztertzea
	Zainketa eta mantenua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Altzarien berreskurapenerako eta garbiketarako denborak ematea.</li> <li>• Gertakarien parte eta jarraipen orria erabiltzea.</li> </ul>	Ikasleak  Irakasleak	14-15ean jarraitu  14-15ean jarraitu	



## 7.5.- SEKTORE EZBERDINEN ARTEKO HARREMANAK

Hezkuntza munduan faktore emozionalak, afektiboak eta harremanezkoak gero interes handiagoa duten faktoreak dira. LOGSEtik aurrera, ikasleen gaitasun guztiak lantzea eta garatzea proposatzen da, lana ez da soilik izango egiten eta ezagutzen irakastea, baizik eta izaten eta elkarrekin bizitzen irakastea ere.

Egun hezkuntza ezin da onartu "*analfabetismo emozional*"-aren ikuspegitik, Golemanek egindako adierazpena. Hezkuntza arlotik lan egitea beharrezkoa da, adimen tradizionalaz gain, *adimen intrapertsonala* (norbera ezagutu, kontrolatu eta motibatze gaitasuna) eta *adimen interpertsonala* (besteen lekuan enpatikoki jartzeko gaitasuna eta eurekin harremanak izateko)

Atal honetan hezkuntza komunitatea (irakasleak, ikasleak, irakasleak ez diren langileak eta familiak) osatzen dugun pertsona guztien heziketazko elkarreraginaren prozesuetan sortzen den dimentsio emozionala, afektiboa eta harremanezkoa landu eta aztertu nahi da. Auto-kontzeptuak eta auto-estimuek, norberaren irudikapena osatzen dutenek, elkarrenganako irudikapenek, itxaropenek eta atribuzioek harremanak ez ezik, arrazoiak ere baldintzatzen dituzte; jokatzen den intentzioa eta ikasteko eta irakasteko hartzen den ikuspuntua. Prozesu hauen garapena ulertzea, emozioena, eta sortzen diren afektuena eta gure heziketa testuinguruan sortzen diren harremanak; honek guztiak aipatutako sektoreen arteko harremanak hobetzen lagunduko digu.

Hori dela eta, norabide hauetan lan egin beharko da:

- Sentimendu eta emozio ezberdinak ezagutzea
- Norberarengan ezagutzea.
- Besteengan ikustea, adierazteko erabilitako hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntza ulertzea.
- Norberaren garapenera bideratzen jakitea eta besteekiko harreman hobeak lortzen jakitea.

### HELBURUAK:

1. Estamentu ezberdinen arteko harremana hobetzea.
2. Gatazken konponbiderako kanalak indartzea.
3. Tutoretza bultzatzea.
4. Gatazken ebazpenerako eta bitartekaritzarako formazioa sustatzea.
5. Tratuan moduak zaintzea eta harremanak onak bultzatzen dituzten ekintzak antolatzea.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
SEKTORE EZBERDINEN ARTEKO HARREMANAK	Hobetzeko proposamen orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eguneroko harremanetan pertsonenganako begirunea eta adeitasuna zaintzea.</li> <li>Errespetua bultzatzeko proiektua garatzea.</li> </ul>	Hezkuntza Komunitatea	14-15ean jarraitu	Ikasturte honetako lehentasuna.
	Prebentzio-neurriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunitate sektore ezberdinentzat heziketa emozionaleko formazioa sustatzea</li> <li>Gatazka ebazpenerako eta bitartekaritzarako formazioa sustatzea.</li> <li>Harreman onak bultzatzen dituzten ekintzak ikasleekin garatzekoak diren proiektu eta lan egiteko planak ezartzea eta biltzea.</li> </ul>	Batzorde Pedagogikoa Irakasleak Proiektuen koordinatzaileak	14-15ean jarraitu	
	Bizikidetzaren indartzeko ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jaiak ospatzea                             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiruhilabeteko jaiak (olentzero, euskararen eguna...)</li> <li>- Agurrak (irakasleak, ikasleak, etab.)</li> <li>- Urtebetetzeak</li> <li>- Zorionak</li> <li>- Ikasle Laguntzaileak</li> </ul> </li> <li>Bidaiak                             <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizikidetzakoak</li> <li>- Ikasturte amaierakoak</li> </ul> </li> </ul>	Zuzendaritza Taldea Irakasleak Ikasleak AZP	14-15ean jarraitu	

## **7.6.- TRATU TXARRA: KIDE BERTINEN ARTEKOA, FAMILIAN ETA IKASTETXEAREN LANGILERIARI EGINDAKO ERASOA**

Kideen arteko harremanak nerabeen gaitasunen garapenean ezinbestekoak dira, bai jazotzen diren momentuetan, bai ostean, eragina ez dutelako soilik orainaldian, baizik eta etorkizunean ere, nerabezeroan ikasitako jokabideak errepikatu ahal direla kontuan hartuz.

Kideen arteko harremanek, gehien bat, adiskidetasun eta laguntasun izaera izaten dute; hala ere, ezin dugu ahaztu badaudela beste harreman mota batzuk euren larritasunagatik kaltegarriak direnak. Harreman hauetan, "kide bertinen arteko tratu txarra" izenekoetan, simetria hautsi egiten da eta elkarrekikotasuna izan beharrean, prepotentzia da nagusi, hots, nagusitasun-menpetasun.

Olweus-ek (1998) honela definitzen du tratu txarra: "Ikasle batek beste baten kontra (behin eta berriz erasotzeko aukeratu duena) egiten duen jazarpen fisiko edota psikologikoa. Ekintza honek, negatiboa eta nahita eginda, biktima jartzen du oso leku txarrean, bakarrik ezin izango da irten egoera horretatik. Harreman hauen jarraipenak oso efektu negatiboak dauzka biktimarengan: auto-estimua jaitsiera, antsietate uneak eta depresio egoerak; honek ikaskuntza garapen arrunta eta eskolan integratzea zailtzen du".

Tratu txarrak eragiten duen sufrimenduak, edozein delarik ere, ez du bakarrik eragina jazotzen duen biktimarengan, baita ikusten duten lekukoengan ere. Horretaz gain, adin berekoen arteko indarkeria mota honek izugarritzko min egiten du, gehienetan ezkutuan sortzen eta garatzen delako eta honek zailtzen du bere antzematea eta tratamendua.

Indarkeria mota hau saihestu behar da, lekukoek kontzientzia hartu behar dute behintzat jarraipenean eta zabalkundean ez laguntzeko, biktimei euren zauriak zaintzen lagundu, erasotzaileei modu baketsu batean harremanak izaten irakatsi eta helduak hezkuntza lan honetan sartu.

Ikasleak heziak izan behar dira bizikidetzaren era positiboetan, ikastetxean tratu txarreko egoerak antzeman ez arren.

### **HELBURUAK:**

1. Indarkeria mota hau saihestea, lekukoek jarraipenean eta zabalkundean ez laguntzeko kontzientzia har dezaten, biktimei laguntza ematea, erasotzaileei modu baketsu batean harremanak izaten irakastea eta helduak hezkuntza lan honetan sartzea.
2. Tratu txarra ahalik eta lasterren antzemateko beharrezko tresnak indartzea.
3. Hezkuntza Sailako esku-hartze protokoloa egokiro aplikatzea.
4. Egoera ezberdinak jartzea, bakoitzean jokatzeko modurik onenari buruz hausnartzeko.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
TRATU TXARRA: BERDINEN ARTEKOA ETA FAMILIAN. HEZKUNTZA ZENTROKO PERTSONALARI ERASOA	Prebentzio- neurriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxean gerta daitezkeen tratu txarreko egoerak eta tratu txarra zer den ezagutzera ematea (Beldur Barik).</li> <li>Eskolaz kanpoko ordutegian ikasleekin gatazka egoerak aztertzea.</li> <li>Eraso eta tratu txarreko egoeretan Eusko Jaurlaritzako esku-hartze protokoloak ezagutzea.</li> </ul>	Orientatzailea Tutoreak Ikasleak Zuzendaritza AZL	14-15ean jarraitu	Informazioa biltzeko orria erabiltzea
	Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Familia berriei harrera egitea</li> <li>Familian, ikastetxean, etab, tratu txar mota ezberdinei eta egoerei buruko formazioa.</li> <li>Balizko tratu txarreko egoeren antzematearen aurrean guztion esku-hartzea eta elkarlana.</li> <li>Gatazka egoeren antzemateko Ikasle Laguntzaile, Orientatzaile eta Bizikidetzako Koordinatzailearen arteko koordinazioa; esku-hartze diseinua egitea eta martxan jartzea tratu txarrak aurreikusteko.</li> <li>Diputazio eta udaleko ordezkariekin eta entitateekin bilerak egitea, balizko tratu txarreko egoerak aztertzeko.</li> <li>Osasuna proiektuan diseinatutako ekintzak praktikan jartzea, tratu txarrak saihesteko (ludikoak, kirolekoak, ludotekak, eskolaz kanpokoak) atsedenaldira eta jantoki orduetan.</li> <li>Eraso edo tratu txarren aurrean, udaletxe eta Eusko Jaurlaritzak diseinatutako esku-hartze protokoloak aktibatzea.</li> <li>Tratu txarreko egoeren konponbidean Ikasle Laguntzaileen esku-hartzea, euren eskatuta edo analisia egin ondoren, Ikasketen Burutza, Orientazioa eta Bizikidetzako Koordinatzailearekin batera.</li> </ul>	Zuzendaritza Orientazioa Familiak IGE Ikasle Laguntzaileak Bizikidetzako Koordinatzailea Udal, Aldundi edo beste taldeetako lankideak Jantokiko monitoreak	14-15ean jarraitu Eskatzen den bakoitzean Beharrezkoa denean	

## **7.7.- CURRICULUM-EREMUA ETA IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUA**

Ikaskuntza-irakaskuntza prozesua harremanezko egoerak sortzen diren eremuak ematen ditu (eta beraz gatazka-egoerak) eta , ondorioz, bizikidetza hobetzeko marko ezin hobea da.

Irakasle-ikasle edo ikasle-ikasle arteko harreman etengabea da eta, irakasleak hezitzaileak diren heinean, esku-hartzea helburu jakin batzuk kontuan izanik bideratua izan ahal da.

Helduak prozesuaren arduradun nagusiak izanik, probentzio printzipioa kontuan izatea garrantzitsua da (harreman onerako etengabeko entrenamenduan oinarritutako ikuspegiarekin egindako prebentzioa baino harago doana). Gauza guztien gainetik adin txikikoaren duintasuna mantentzea beharrezkoa izango da eta egoeraren kontrola izaten saiatzea, eta berriro gertatzeko edo ez bere esku dagoela sentitzeko.

Tutorearen lana eta irakasle guztien parte hartzea ikasleen osotasunezko garapena lortzeko eta elkartrukatzeko eremua eraikitzeo oinarritzkoak dira.

Tutoretza Ekintza Planean ekintza egokien programazioa eta arlo bakoitzeko curriculumean bizikidetza eraikitzeo ekintzak sartzea beharrezkoak dira eremu guztietan bizikidetza hobekuntzan aurrera egiteko.

### **HELBURUAK:**

1. Bai arlo bakoitzeko programazio didaktikoetan bai tutoretza ekintzan lan egiteko prebentzio-proposamenetan erabakiak hartzea.
2. Gelan tutoretza ekintzako eta arlo bakoitzeko programazio didaktikoetako ekintzak lantzea, gatazken konponbideei buruzkoak, auto-kontrola eta erlaxazio tekniketan entrenamenduari buruzkoak, giza gaitasunak lortzeko eta emozioak adierazteko ekintzei buruzkoak.
3. Arlo bakoitzeko programazio didaktikoan izaera kooperatiboa duten ekintzak sartzea, talde-lana eta bizikidetza sustatzen dutenak.

LAN EREMUA	ATALA	PROPOSAMENA	GAUZATZEA	DENBORALIZAZIOA	OHARRAK
CURRICULUM-EREMUA ETA IRAKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUA	Batzorde pedagogikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esku-hartze eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatzen duten ekintzak programazioetan sartzeko beharra azaltzea: binakako ekintzak, lan-taldeak, solasaldi literarioak, proiektu bidezko lana, etab. (batez ere HBSP izeneko taldean)</li> </ul>	Zuzendaritza Orientazioa Mailetako koordinatzaileak	Ikasturte hasieran	Berritzeguneko laguntzailearekin elkar lana bultzatzea
	Departamentuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintzak, uneak eta lekuak zehaztea eta gelako programazioetan sartzea.</li> </ul>	Departamentuko buruak Irakasleak	Garapena 14-15e	
	Tutoreak Irakasleak Departamentuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeko bizikidetza ereduarekin bat datozen arlo guztietako curriculumetan norbanakoaren autonomia eta ekimena gaitasuna eta, gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna sartzeko aurrera egitea.</li> </ul>	Irakasleak	2015	
		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaskuntza prozesuan parte-hartzea eta ikasleen autonomia sustatzen duten ekintzak diseinatzea eta martxan jartzea.</li> </ul>	Irakasleak	2015	Ikasturtean zehar

## **8.- BIZIKIDETZA BEHATOKIA**

DOLORES IBARRURI BHIko bizikidetza behatokia institutuko bizikidetza kudeaketaren organo arduraduna da. Bere xedea, osaera, funtzionamendu-erregimena eta betekizunak DOLORES IBARRURI BHIko AJAn batzen dira, IV. tituluan, IV. atalean.

## **9.- HARRERA PLANA**

DOLORES IBARRURI BHIko harrera plana honekin batera doan dokumentu batean aurkitzen da.

## **10.- ESKOLA-BITARTEKARITZA PROIEKTUA**

DOLORES IBARRURI BHIko eskola-bitartekaritza proiektua honekin batera doan dokumentu batean aurkitzen da.

## **11.- ZABALKUNDEA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Hezkuntza komunitatearen sektore ezberdinen artean BIZIKIDETZA PLANaren edukiak zabaltzeko eta ezagutarazteko erabiliko diren tresnak honako hauek izango dira:

- Irakasle, familia eta ikasleentzako planaren aspektuei buruzko zirkular informatiboak.
- Aldizkaria, urtekaria.
- Tutoretza Planean bildutako ekintzak, indarrean dauden bizikidetza arabei buruzkoak.
- Ikastetxean indarrean dauden eta sortu berriak diren esku-hartze protokoloen hedapena:
  - Sartu berria den ikasleriaren harrera
  - Irakasleen harrera
  - Bitartekotza gatazketan
  - Ustezko eskola-jazarpena
  - Irakasle edo irakasle ez den pertsonalarenganako erasoak
  - Haurren tratatu txarra
  - Aretuak zaintzea eta mantentzea.
- Ikastetxearen web orrialdea

Bizikidetza behatokia eta OOG osoa planaren jarraipenaz eta ebaluazioaz arduratuko da, horretarako hurrengo bilera egutegia zehazten da:

- Irailean bilera egingo da BIZIKIDETZA PLANa berraztertzeko, ikasturte amaierako memorian dagokion kapitulu biltzen diren hobekuntzarako proposamenetan oinarriturik.
- Hiruhilabeteko bileretan garatutako ekintza, ezarritako neurri eta zuzenketa jarraipena egiteko errebisioa; eta horren ostean, OOGri berri emanez.
- Apirilean bilera egingo da bigarren hiruhilabetekoan zehar garatutako ekintza, ezarritako neurri eta zuzenketa jarraipena egiteko; eta horren ostean, OOGri berri emanez.
- Ekaineko bileran garapenean sortuz joan diren aurrerapenen balorazioa, sortu diren zailtasunen identifikazioa eta OOGri bizikidetza hobetzeko egoki irizten diren neurrien proposamena burutuko dira.

Ikasturte amaieran zuzendaritza taldeak BIZIKIDETZA PLANaren memoria burutuko du, eta OOGn onartu ostean, ikasturte amaierako memorian sartuko da. Bertan bizikidetza behatokiak, irakasleen klaustroak, ikasleek, ikasleen guraso elkarteek eta OOGk berak egoki ikusten dituzten hobekuntza proposamenak sartuko dira.

Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxeak BIZIKIDETZA PLANa berrikusiko du ikastetxearen bizikidetza egoeraren bilakaera aztertzeko helburuarekin, eta aurreko ikasturteko memorian

bildutako hobekuntza proposamenak sartzeko. OOGk BIZIKIDETZA PLANaren urteko berrikuspen agiria onartu beharko du, kideen gehiengo oso batek onartua, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan sarturik eta ikuskaritzara igorririk.

## 12.- ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: PARTE HARTZEA, IKASLEAK: Funtzioak birdoitzea

1. Taldea informatzea eta ordezkatzeta.
2. Ebaluazio saioetan parte hartzea.
3. Figura hauek mantendu behar direla uste dute eta hautaketa lehendabizi boluntarioekin izan dadila proposatzen dute, boluntariorik egon ezean, bozkatzearen bitartez.

### II. ERANSKINA: PARTE HARTZEA, IKASLEAK: Gelaren apainketa eta pertsonalizazioa baldintza jakin batzuekin.

1. Tutoreaz gain beste irakasle batzuek parte hartzea interesgarria da, plastikan, diseinuan, ordenagailuetan, ... oso klase interesgarriak dira gela apaintzen laguntzen duten ekintzak egiteko.
2. Gela bakoitza taldeak nahi duen moduan apaindua izan daiteke, beti ere baldintza jakin batzuekin eta proposamenaren marrazki bat eginez. Apainketa lanak egin daitezke, esaterako:
  - a. Ikasturtearen egutegia taldekideen argazkiekin.
  - b. Ikasturtean zehar egindako egintzen argazkien kortxoak.
  - c. Urtebetetzearen egutegia
3. Gelan ikasgai bakoitzeko lekuen banaketa eta arloaren arabera apainketa.
4. Taldearen eskuekin, siluetekin, oinekin, ... udako argazkiekin egindako frisoak.
5. Horma-irudiak eta eurek diseinatutako kartelak, ....

### III. ERANSKINA: GATAZKEN EBAZPENEA: Gatazken aurrean esku-hartzeko jarraibide koherenteak adostea.

1. Gatazkek antzematea eta aurre egitea.
2. Ikaskuntza iturria izan daitekeela ulertzea eta eurak lantzea ez dela denbora galtzea.
3. Garrantzitsua da ez handiestea, baina bai ezagutaraztea.
4. Adimen emozionala landu behar da.
5. Zaintzako irakasleei laguntza eskatu ahal izatea, gelako gatazkek berehala konpondu ahal izateko.